20 08
ANOETAKO KIROL HIRIA

Anoetako Kirol Hiria izenekoa 1950. urtean eraiki zen udaleko eta Donostiako Udal Aurrezki Kutxako lurraldeetan. Horretarako, Donostiako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gazteria Frontearen finantzazioa jaso zuen, eta Amara Berriko Zabalgunearen hegoaldeko muturrean kokatu zen.

Honako hauek osatzen zuten: 100 plazako gazte aterpe bat (1954), saskibaloirako estalki gabeko bi pista, eskubaloirako beste bat, hockeyrako beste bat, tranpolin olinpikodun 25 metroko igerileku bat eta haurrentzako beste bat, gimnasioa, legarreko futbol zelaia, tenis pista eta errautseko pista atletiko bat (1950). Azken hura hirurogeita hamarreko hamarkadan material sintetikoaz egindako beste batengatik ordezkatu zen. Barruan, sarritan errugbirako erabiltzen zen futbol zelai bat zeukan.



José Antonio Gasca kiroldgia.



Anoetako kirol hiria 1960. urte inguruan. Eraikina desagertutako gazte aterpeari dagokio. Haren aurrealdean, 25 metroko igerilekua. Kutxa Fototteka CC by SA.




Ortoargazkia 1945/46. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografiako Erakunde Nazionala. Anoetako kirol hiriaren eraikuntza ikus daiteke.

Gazteria Fronteak kudeatu zuen 1969. urtera arte eta ondoren, Gazteriaren Ordezkaritza Nazionalak (1969-1977).


Aipatutako instalazioek okupatutako lurraldeetan Anoetako Udal Estadioa eraiki zen (1993), atletismo pista batez hornituta; bere ondoan “Anoetako Udal Estadio Txikia” egin zen, osagarrizko pista atletiko eta 1.250 ikusle har ditzaketen harmailekin.

Adierazitako gunearen inguru bestelako kirol instalazio nabarmentzen dira: 1965ean, Anoetako Belodromoa eraiki zen, 7.500 ikusle hartzeko bi harmailekin; 1973an hura estali zen eta 1977an, erreforma garrantzitsuak egin ziren, besteak beste, pelouse-an sei kaletako atletismo pista bat egin zen, eta ondoren, Kiroletako Udal Jauregia deitzen hasi zen. 2005. urtean, izena berriz aldatu zen, gaur egungo “Antonio Elorza Belodromoa” izenarengatik. Gaur egun, 5.500 ikusleentzako lekua dago.

Honako hauek ere aipatutako gunea osatzen dute: Carmelo Balda, Atano III eta Trinketa frontoiak (2003an eraitsita); “José Antonio Gasca” Udal Kiroldegia, “Paco Yoldi Igerilekuak” Udal Kiroldegia, polikiroldegiko pista batekin, 50 metroko igerileku estaliarekin eta estalkirik gabeko hainbatekin eta Txuri Urdin Izotz Jauregia (1973), Gipuzkoako Foru Aldundiarena. Azken horrek izotz-hockey eta patinaje artistikoko txapelketetarako arauzko pista dauka, eta baita 650 ikusleentzako harmaila bat ere.



Ortoargazkia 1956-57. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografiako Erakunde Nazionala. Anoetako Kirol Hiria 1947an. Instalazioak: 1. Atletismo pista. 2. Gazte aterpea. 3. Saskibaloiko pistak. 4. Legarreko futbol zelaia. 5. Gimnasioa. 6. 25 metroko igerilekua. 7. Haur igerilekua. 8. Tenis pista. 9. Eskubaloiko pistak. 10. Hockey pista. 11. Frontoiak. 12 Trinketa (2003. urtera arte kontserbatu zen). 13. Atletismo entrenamendu pista (denbora luzez bazterrean utzita).



Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografiako Erakunde Nazionala, UTM 30N ETRS89 // X: 583302 m // Y: 4794704 m// Z: 5 m Anoetako Kirol Gunea: 1. Anoetako Frontoia. 2. J. A. Gasca Polikiroldegia. 3. Atano III Frontoia. 4. Anoetako Udal Estadioa. 5. Estadio Txikia. 6. Izotz jauregia. 7. Carmelo Balda Frontoia. 8. Paco Yoldi Igerilekuak. 9. Kiroletako udal jauregia. – Elorza Belodromoa. 10 Illumbe (kiroletarako eta zezenketarako erabilita).